

ZORTZIGARREN KAPITULUA

Mendi mendian bizitzen ekiten diogu La Vache eta biok, eta basurdeak ikusten ditugu.
Gure arteko arazoak, edo nola bereizi edo apartatu ginen elkarrengandik. Hizketaldi serioa daukat Setatsuarekin India, Pakistan eta beste lekuetaz.

1. Zer egin behar dute mendi-mendira joateko?
2. Zer gertatzen ari zaio La Vacheri?
3. Suaren metafora agertzen da kapitulu honetan. Zer esan gura du?
4. Behi bien arteko harremana txanda bitan apurtu zen. Zeintzuk dira une bi horiek?
5. Zer kontatzen dio Setatsuak Mori Pakistan eta Indiaren gainean?
6. Historian behiek izan duten protagonismoaz galdetzen dionean Mok, zer erantzuten dio Setatsuak?
7. Nor da Piarres? Zer egiten du arratsero balkoipean?
8. Poetak esan bezala *ni ez naiz hemengoa*. Ze poetaz ari da hitz egiten?

Gogoeta

Zer da zoriontsua izatea? Gauza asko behar dira zoriontsua izateko? Zer behar da zure ustez? Zelan lortu bizitzarako su gartsu eta koloretsua?

Kapitulu honetan Zuberoako kanta batzuk daude.

Kopia itzazu eta euren esanahia argitu.

Bila itzazu Zuberoako beste kanta batzuk. Kopiatu baten bat koadernoan.